

Beka

Iberdrola - Bilboko Arte Ederren Museoa

2016-2017



DEIALDIA

Iberdrola Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa, artelanen kontserbazioaren eta zaharberitzearen arloan prestakuntza bultzatzeko eta ikerketa sustatzeko helburuarekin, Kontserbazio eta Zaharberitze Sailean prestakuntza beka bat emateko lehiaketa deitu dute. Bekaren xedea honakoa da:

- Gazteen laneratzea sustatzea, ikaslea testuinguru profesionalera hurbilaziz.
- Jarduera museistikoetan prestakuntza eta esperientzia handitzea, museoaren funtzio sozialaren alde eginez.
- Ikerketarako gaitasunak sustatzea, ikuspuntu zientifikotik.
- Kontserbazioaren eta zaharberitzearen arloan, berariazko ezagutzak eta trebetasun teknikoak garatu eta indartzea.
- Tituludunei beka bat gauzatzeko aukera eskaintzea; bertan, egungo irizpideak eta museoko jardueren metodologia aplikatuko dira.

BEKAREN EZAUGARRIAK

Beka 2016ko irailaren 1ean hasiko da, eta hamar hilabeteko iraupena izango du; aldi berberaz luzatzeko aukera izango da behin, baina, horretarako, alde aurretik aldeko txostena egin beharko dute Kontserbazio eta Zaharberitze Saileko buruak eta museoko Zuzendaritzak, gutxienez beka amaitu baino bi hilabete lehenago.

Ordutegia goizekoa izango da, 09:00etatik 15:00etara.

Oporaldi hauek finkatu dira: 2016ko abenduaren 23tik 2017ko urtarrilaren 6ra, eta 2017ko apirilaren 10etik 17ra. Era berean, EAEko 2016ko eta 2017ko lan-egutegiko jaiegunak ezarriko dira.

Bekaren horidura ekonomikoa 15.000 € gordinekoa da, hamar hilabetetan ordaintzekoak, eta hileko ordainketa amaituen bidez ordainduko dira.

Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioak alta emango dio bekadunari Gizarte Segurantzari, programak irauten duen aldiran, eta, gainera, museoak bekadunaren aldeko istripu-asegurua kontratatu du izan daitezkeen gertakizunetarako, bai eta erantzukizun zibileko aseguru ere, gauzei edo pertsonari eragindako balizko kalteak estaltzeko; horrek guztiak programa egiten den bitartean balio izango du.

DEIALDIA IREKITZEA

Deialdia 2016ko maiatzaren 13an hasi eta maiatzaren 27an amaituko da. Ez da eskabiderik onartuko aipatutako egun horietatik kanpo.

DEIALDIKO PLAZA

Deialdiko plaza Kontserbazio eta Zaharberitze Sailerako da. Beka eskuratzen duen pertsonak honako jarduera hauek egin beharko ditu:

- Museoko bildumaren kontserbazio eta zaharberitze tratamenduak.
- Egindako lanen dokumentazioa.
- Parte-hartzea mailegu edota aldi baterako erakusketa proiektuetan.
- Ikerketa teknikoak lanak.

HAUTAGAIEN BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA

Baldintza orokorrak:

Hautagaiak, betiere pertsona fisikoak izanik, unibertsitateko titulua izan beharko dute, eta ezin izango dituzte 35 urte baino gehiago eduki deialdia ixten den egunean.

Baldintza zehatzak:

- Arte Ederretako diplomatura, gradua edo lizentziatura, ondare kulturaren kontserbazio eta zaharberitze espezialitateekin, hala nola, pintura, papera eta eskultura.
- Microsoft Office programari eta argazkilaritza digitalaren edizioari buruzko erabiltzaile mailako ezagutza aurreratuak.
- Hizkuntzak: ingeleza. Bestelakoak ere balioetsiko dira.
- Argazkilaritzako erabiltzaile mailako ezagutza aurreratuak..

Eskabidearekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- NAN edo dokumentu baliokidearen kopia.
- Curriculum Vitae.
- Espediente akademikoa, batez besteko nota zehazki adierazita. Batez besteko balorazioa oso ongitik behera duten espediente akademikokoak atzera botako dira. Hautagaiak eskatutako titulazioa eduki beharko dute, eta zuzenean bekarekin loturik egon beharko du.
- Gomendiozko bi gutun, hautagaiari eskolak eman dizkieten jarduneko irakasleek sinatuta.
- Beka hautatzeko arrazoiak eta programari esker lortu nahi diren emaitzak jasotzen dituen txostena. Idaztean, estiloko arau hauek bete beharko dira:
 - Hedadura: 5 orri
 - Letra mota: Arial Narrow
 - Letraren tamaina: 12 puntu

Eskatutako dokumentazioa artxibo bakar batean bidaliko da, pdf formatuan, gehieneko tamaina 10Mb izanik. Museoak beharrezkotzat joz gero, eskatutako dokumentuen jatorrizkoa eskatu ahal izango du, edozein unetan.

ESKABIDEEN FORMALIZAZIOA

Eskabideak museoaren webgunean horretarako dagoen online formularioaren bidez formalizatuko dira (**hemen**).

Galderak egiteko edo zalantzak argitzeko, hauekin jarri beharko da harremanetan:

Zerbitzu Orokorren eta Giza Baliabideen Zuzendariordetza.
Tel. 94 439 60 60.

HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa prozesuaren aurretiko fasean, museoak oinarrietan finkatutako baldintza orokor eta zehatzak betetzen direla egiaztatuko du.

Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez duen hautagaiari hiru egun baliodunetan akatsa konpontzeko eskatu ahalko zaio. Epe hori amaitu ondoren, automatikoki baztertuko da.

Prozesuaren bigarren fasean, elkarrizketa pertsonala egingo da. Horretarako, aztertze eta baloratzeko batzordea sortuko da, eta Zuzendaritzako koordinatzaile Silvia García Lusa andrea izango da burua. Kontserbazio eta Zaharberritze Saileko buru M^o José Ruiz-Ozaita Ruizek batzordekide gisa jardungo du, Bilboko Arte Ederren Museoa ordezkatuz, eta Zerbitzu Orokorren eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzako teknikari Leire Jaureguibeitia Cayrols andrea idazkaria izango da.

Iberdrola Fundazioari dagokionez, aipatutako batzordeko kide izango dira: Prestakuntza eta Ikerketa Saileko eta Lankidetzako eta Elkartasun Saileko arduradun Alberto García Casas jauna, eta Arte eta Kultura zein Iraunkortasun eta Biodibertsitate Saileko arduradun Carmen Recio andrea.

Batzordekideek beren egitekoak hautatuko pertsonari eskuordetzeko aukera izango dute, pertsonalki bete ezin dituztenean.

Hautagaien lehen hautaketan berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoa batzordeko presidentek izango du.

Eskabideen balorazioa 100 punturekin gauzatuko da gehienez, hurrengo fasean arabera, eta puntuazio hauekin bat etorri ahaztuko bakoitzean:

Lehenengo fasea: 60 puntu

- CVaren eta espediente akademikoaren balorazioa: 40 puntu.
 - Prestakuntzako merezimenduengatik: 25 puntu.
 - Merezimendu profesionalengatik: 15 puntu.
- Beka lortzeko arrazoiak eta programari esker lortu nahi diren emaitzak jasotzen dituen txostenaren balorazioa: 20 puntu.

Lehenengo fasea gainditu eta bigarrenera igaro ahal izateko, beharrezkoa izango da gutxienez 40 puntu lortzea.

Bigarren fasea: 40 puntu

- Elkarrizketa pertsonala.

Lehenengo fasea gainditzen duten hautagaien izenak zerrenda batean jasoko dira, elkarrizketa pertsonalaren eguna eta ordutegiarekin batera. Zerrenda museoaren webgunean argitaratuko da (**hemen**) 2016ko ekainaren 20tik aurrera.

Dena dela, aukeratutako hautagaiei pertsonalki jakinaraziko zaie bigarren faseari buruzko informazioa.

HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Elkarrizketen fasea amaitu ondoren, azterketa eta balorazioko batzordeak titularraren eta ordezkoen zerrenda prestatuko du, hasieran edo programaren indarraldian bat-batean gertatu daitezkeen uko egiteak betetzeko. Zerrenda horretan, lortutako puntuazioak egongo dira zehaztuta, eta museoaren webgunean argitaratuko da (**hemen**), ekainaren 20tik aurrera.

Museoak 2016ko ekainaren 30a baino lehen jakinaraziko dio erabakia onuradunari, eta beka esleitu gabe uztea ere erabaki ahalko du.

BATERAEZINTASUNAK

Deialdi honen babeseko diru-laguntza bateraezina izango da Espainiako edo erkidegoko funts publiko edo pribatuarekin finantzatutako beste edozein beka edo laguntzarekin, bai eta interesdunaren kontratuzko edo estatutuzko lotura dakarten soldatekin ere, eta behar ez bezala jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira.

Beka behin bakarrik jaso ahal izango da.

BEKADUNAREN BETEBEHARRAK

Hautatutako pertsonak idatziz onartu beharko du beka, emango zaion posta elektronikokoaren bidez, bost egun naturaleko epean, beka esleitu zaila adierazten duen museoaren jakinarazpenetik zenbatzen hasita. Ezarritako epe barruan beka onartzen ez bada, ezekotzat hartuko da, eta lehen hautaketako zerrendako lehenengo hautagaiari emango zaio.

Beka onartzeak museoarekin akordio pribatu bat sinatzea dakar.

Era berean, akordio horren esparruan, bekadunak museoarekiko konfidentzialtasuneko konpromisoa izenpetu beharko du.

Bekadunak baimena ematen die, bai Iberdrolari, bai museoari, bere izena webguneean eta dagozkien txostenetan agertzeko.

Bekadunak bereziki aintzat hartu beharko ditu segurtasuneko eta higieneko arauak, eta beharrezkoa eta berehalakoa izango da horiek betetzea, bere segurtasun fisikoari eta museoan zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonen eragin diezaielako.

Programan parte hartzeak ez du bekadunaren eta museoaren arteko inolako lan-harremaneko izaera izango.

Hautagaiak oinarri hauetan aipatutako baldintzei buruz museoak har ditzakeen erabakiak berariaz onartzen dituela dakar eskabidea aurkezteak.

BEKAREN GARAPENA

Onartutako hautagaiaren jarduera museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Saileko arduradunak ikuskatuko du, eta bekadunaren tutoretza eta jarraipena egin beharko ditu.

Bekadunak konpromisoa hartuko du programan zehaztutako eginkizunak eta saileko buruak egoki irizitako jarduerak betetzeko. Bertaratzeko ordutegia oinarri hauetan zehaztutakoari ego kituko zaio. Kontserbazio eta Zaharberritze Saileko buruak bekadunaren jarraipena egingo du, eta azken ziurtagiria eta txostenak igorriko ditu. Era berean, bost hilabeteara, garatutako jarduerak justifikatzeko txosten labur bat egin beharko du.

Bekadunak amaierako txostena aurkeztuko du.

BEKA ETETEA ETA BALIOGABETZEA

Ezinbesteko arrazoi batengatik, gaixotasunagatik eta/edo amatasunagatik, beka eten edo baliogabetzeko aukera egongo da. Atzerapenak edo eteteak hori justifikatzen duten beharrezko dokumentu-bermeak izan beharko dituzte. Etenaldia amaitu ondoren, berriro aztertu ahal izango da, eta behin betikotzat hartzeko aukera izango da, atzerapen edo eteteko arrazoiak irauten badute.

Bekadunak betebeharrak betetzen ez baditu, museoak eskumena izango du beka amaitutzat emateko, dagozkion bestelako ekintzen kalterik gabe.

Hala behin betiko etetea nola baliogabetzean, bekadunak jasotako zenbatekoaren %50 itzuli beharko du, egoera horretarako ezarri den prozedura betez.

OINARRIEN ALDAKETA

Museoak oinarri hauek aldatzea erabaki ahalko du; horretarako, nahikoa izango da webgunean argitaratzea (**hemen**).